

IKASTOLEN 7. BATZARRA

LEHENDAKARIAREN HITZAK

Eguerdi on, guztioi!

Ezer baino lehen, ZORIONAK Ikastolon mugimenduko kide guztioi eta bakoitzari. Zorionak, 114 ikastoloi. Eztabaida-prozesu luze, trinko eta aberats baten ondorioz, Euskal Herria eraikitzeko behar ditugun biharko Ikastolen norabidea birdefinitu dugu. Milaka lagun, ehunka ekarpen eta dozenaka bilera egin ditugu hona iristeko. Prozesuak eta emaitzak merezi izan dute. Duela urte bete baino sendoago gaude.

Eskerrik asko gaur gurekin une hau partekatzeraz etorri zareten guztioi. Baita etorri ezina adierazi diguzuen ere. Ikastolen mugimendua ezer gutxi da zuek gabe, Herrigintzarik gabe. Ez dugu irudikatzen bestelako etorkizunik, herri honek aurrera egin badu askoren eta askotarikoen arteko elkarlanari, lankidetzari eta aliantzei esker izan baita. Ematen dugun adina edo gehiago jasotzen dugu zuengandik. Milesker gurekin batera amesteagatik.

Eskerrik asko, nazioarteko ordezkariak. Scola Corsa eta Sementeko ordezkariak. Guk erein genituen bezala, hor zehar ereiten ari zarete zuek hazi berriak. Proiektu ederrak loratzen ari dira Euskal Herritik kanpo ere.

Eta zorionak eta eskerrik asko egunez egun, Ikastoletan, Ikastolen Elkartean, konbentzimenduz eta militantziaz beteta lanean ari zareten profesionalei eta nola ez zuen seme-alabak hazteko eta hezteko Ikastolen aldeko hautua egin eta egunero egunero askotariko ekarpena egiten duzuen gurasoei.

Baina.... aitortza berezia egin nahiko nizuke zuei, gure izateko arrazoi zareten horiei. Etorkizuneko ameslari. Gure ikasleei. Denei. ia jaio berriak zinetenetik Ikastoletan hezten eta hazten ari zaretenoi. Zuek zarete gure muina, zuekin ikasten dugu eta zuek zarete gure etorkizuna.

Eskerrik asko, beraz, zuei, ameslari guztiei. Zuei esker iritsi gara honaino. Eta zuekin batera helduko diogu etorkizunari.

Horretarako elkartu baikara, gaur, 114 ikastoletako ordezkariok, etorkizun hurbilean ditugun erronkei zein erantzun eman nahi diegun erabakitzeke. Bide emankorra izan da, baina malkoak ere bota ditugu tartean. Horrelako prozesu batek barrenak ere astintzen dizkigulako eta, ondorioz, emozio eta sentipen ugari azaleratu zaizkigulako. Baina gaurkora iritsita, badira nabarmentzen diren bi sentipen: poza eta indarra. Pozik gaude, pozik taldean iritsi garelako ekainaren 22ra, Euskal Herri osoan aritu garelako, gai garrantzitsuez eztabaidatu dugulako eta indartsu mugimendu eder honetako kide garelako. Euskal herriari gure aletxoa eskaintzen diogulako eta amesten jarraitzeko irmotasuna erakutsi dugulako.

Biharko Ikastolak, biharko Euskal Herria eraikitzeko. Etorkizunera begira jarri gara eta etorkizun hori eraikitzeko milaka ikastolakidek elkarrizketa kolektibo baten bidez hitza hartu dugu. Eta,



egin, gure modura egin dugu: behetik eta elkarrekin, entzunez eta hitz eginez, eztabaidatuz eta erabakiak hartuz.

Herritik eta herritarrengandik sortu ginen, eta herriari eta herritarrei zor gatzaizkie. Biharko Euskal Herria herritik eta herrietatik eraikitzen jarraitu nahi dugu. Ikastola eredu baliatu nahi dugu horretarako: Behetik gora eraikia, saretuta, autoeratu, herrian errotua, bertatik eta bertarako sortutako proiektu eraldatzaileak garatzen dituen, gainerako eragileekin elkarlanean aritzen dena, egungo erronka sozialei parez pare begiratu eta proposamen berritzaileak plazaratzen dituen, Euskal Herri osoan eragiten duena. Ikastola ereduak badu etorkizuna. Ikastola ereduak eta herri ekimenak. Hauek barnebiltzen dituzten balioak baitira gure herriak aurrera egiteko behar dituen palankak.

Gure ekarpena berritu, eguneratu eta plazaratu dugu. Biharko Ikastolak eraikitzen ari gara, biharko herria eraikitzen jarraitzeko. Zazpigarren Batzarrak gure gizarteak behar duen hezkuntza ereduari konprezioa jarri dio. Handiak dira aurrean ditugun erronkak, handiak dira beharrak, eta handiak dira horiei erantzuteko gure indarrak.

Garbi utzi nahi dugu, halere, ez garela guretzat bakarrik ari eta ez dugula bakarrik egin nahi. Hezkuntza sistemari eta euskal jendarteari ekarpena egiten jarraituko dugu. Eta zuekin egin nahi dugu bidea hezkuntza, herrigintza, kulturgintza eta euskalgintzako eragileekin, tokian tokiko erakunde eta administrazio desberdinekin. Elkarlanean, elkarrekintzan, lankidetzan. Erronkak kolektiboak direlako, herriarenak, eta erantzunek ere halakoak izan behar dutelako. Erantzun partekatuak behar ditu herri honek.

Zer da, bada, gaur erabaki duguna?

Biharko Ikastolak behar ditugula biharko Euskal Herria eraikitzeko. Esaldi laburra bezain mamitsua.

- Ikastola-ereduaren aldeko hautua berretsi eta indartu dugu.
- Ikastolon mugimendua indartzea erabaki dugu.
- Euskal Hezkuntza sistema burujabea eraikitzeko ekarpenak egiten jarraitzeko engaiamendua hartu dugu.
- Euskal Herri osoari erantzuteko egitasmo nazionalak indartu eta berriak sortzea deliberatu dugu.
- Euskal Herrian bizi diren ikasle guztientzako aukera erreala izateko neurriak hartzeko konpromisoa berretsi dugu.
- Ikastolon mugimendua osatzen dugun pertsona guztiak erdigunean jartzea erabaki dugu.
- Hezkuntza Proiektua sendotzeko bideak zehaztu ditugu. Hasi, euskal curriculum eguneratuz, ikasmaterialen nolatasunarekin jarraitu eta digitalizazioaren burujabetzarako eta tresna digitalen integrazio pedagogikoaren inguruko posizioa hartuz.
- Hezkuntza formaletik haratago hezkuntza ez formalean ere gure hezkuntza-proiektua garatzearen aldeko hautua indarrez berretsi dugu.



- Euskal kulturaren sorkuntzan eta transmisioan lan-ildo berriak jorratu ditugu, Eta Euskal Herri osorako euskararen ofizialtasuna aldarrikatuko dugu. Ikastolak euskara lau haizeetara zabaltzeko sortu ginen. Eta gaur egun euskarak ikastolen beharra du, behar bada, sekula baino gehiago.

Amesten jarraitzen dugu. Amesten dugu izango dugula etorkizun oso hurbilean Ikastola berria Beskoitzen; euskara ofiziala izango dela Aturritik Barbaduneraino eta Kantauritik Bardearaino; burujabe eta ausartak izango garela amesten dugu; jendarte justuago eta kohesionatuago batean biziko garela; euskararen kontrako oldarraldiarekin baino euskararen aldeko adostasun sozial eta politikoeekin amesten dugu; amesten dugu desobedientzara jo beharrik izan gabe gure ikasleek euskaraz burutu ahal izango dutela beraien ikaste-prozesu osoa eta hona iritsita, une hau probestu nahiko nuke txaloz babesteko gure ikasleei Baxoko ahozko handia euskaraz pasatzea ahalbidetuko dien irakasle taldea. Jaso ezazue gure elkartasuna eta babes!

Sarri, egunerokoaren kezkek eta zailtasunak gailentzen zaizkigu. Baina, zorionekoak gu, talde oso bat dugu-eta bultzaka, eusten gaituen sare indartsu bat, etorkizunari baikortasunez, ilusioz eta gogo biziz begiratzen dion ameslariak gara.

Gure komunitatea zabala eta konprometitua da. Prest gaude lan berriei ekiteko. Herriarentzat eta herritarrentzat; hezkuntzatik, euskalgintzatik eta herrigintzatik. Izan zirenengatik, garenongatik, izango direnengatik... Atzo, gaur eta bihar, gora Ikastolak eta gora ameslariak!



Eguerdi on!

Antes de nada, FELICIDADES a todos y a cada uno de los miembros del movimiento de las Ikastolas. Zorionak, a las 114 ikastolas. Un largo, denso y rico proceso de debate nos ha llevado a redefinir el rumbo de las Ikastolas del mañana para construir la Euskal Herria del futuro. Una labor de miles de personas, cientos de aportaciones y decenas de reuniones para llegar aquí. El proceso y el resultado han merecido la pena. Estamos más sólidos que hace un año.

Gracias a todos los que habéis venido hoy a compartir con nosotros este momento. También a los que nos habéis manifestado que no podríais asistir. El movimiento de las Ikastolas no es mucho sin vosotros, sin los agentes populares. No imaginamos un futuro sin la participación popular, porque si este país ha avanzado ha sido gracias al trabajo en común, la cooperación y las alianzas entre muchos y muy diversos. Recibimos de vosotros tanto o más de lo que damos. Gracias por soñar con nosotros.

Gracias, a la delegación internacional. Representantes de Scola Corsa y Semente. Vosotros también estáis sembrando nuevas semillas, así como lo hicimos nosotros. Nos alegra ver cómo están floreciendo bellos proyectos también fuera de Euskal Herria.

Y enhorabuena y gracias a los profesionales que estáis trabajando día a día, en las Ikastolas, en Ikastolen Elkartea, llenos de convencimiento y militancia; y, cómo no, a los padres que habéis optado por las Ikastolas para criar y educar a vuestros hijos.

Pero... me gustaría hacer un reconocimiento especial a vosotros, que sois nuestra razón de ser. A los soñadores del futuro. A nuestros alumnos. TODOS. A los que desde que casi acababais de nacer estáis creciendo y educando en las Ikastolas. Vosotros sois nuestra esencia, con vosotros aprendemos y vosotros sois nuestro futuro.

Gracias, pues, a vosotros, a todos los soñadores. Gracias a vosotros hemos llegado hasta aquí. Y con vosotros abordaremos el futuro.

Porque para eso nos hemos reunido hoy los representantes de las 114 ikastolas, para decidir qué respuesta queremos dar a los retos que tenemos en un futuro próximo. Ha sido un camino fructífero, pero también hemos derramado lágrimas de por medio. Porque un proceso así también nos sacude las entrañas y, en consecuencia, nos han aflorado muchas emociones y sensaciones. Pero llegados a hoy, hay dos emociones que destacan: la alegría y el orgullo. Estamos contentos, contentos porque hemos llegado en grupo a este 22 de junio, hemos estado trabajando en toda Euskal Herria y hemos debatido sobre temas importantes. Y estamos orgullosos de formar parte de este precioso movimiento. Porque ofrecemos nuestro grano de arena al pueblo vasco y hemos demostrado firmeza para seguir soñando orgullosos.



Las Ikastolas del mañana para construir la Euskal Herria del mañana. Hemos imaginado el futuro y para construir ese futuro hemos tomado la palabra a través de un diálogo colectivo entre miles de miembros de las ikastolas. Y lo hemos hecho a nuestro modo: desde abajo y juntos, escuchando y hablando, debatiendo y tomando decisiones.

Surgimos del pueblo y de la ciudadanía y nos debemos al pueblo y a la ciudadanía. Queremos seguir edificando la Euskal Herria del futuro desde la construcción de país. Para ello nos basamos en el modelo Ikastola: construido de abajo arriba, formando una red, auto constituido, arraigado al pueblo, que desarrolla proyectos transformadores creados para y desde el pueblo, que colabora con el resto de agentes, que mira de frente a los retos sociales actuales y lanza propuestas innovadoras que inciden en toda Euskal Herria. El modelo Ikastola tiene futuro. El modelo Ikastola y la iniciativa popular tienen futuro. Los valores que engloban los dos son la palanca que necesita nuestro país para avanzar.

Hoy hemos renovado, actualizado y dado a conocer nuestra aportación. Estamos construyendo las ikastolas de mañana para seguir construyendo el país de mañana. La Séptima Asamblea de las Ikastolas ha puesto concreción al modelo educativo que necesita nuestra sociedad. Grandes son los retos que tenemos por delante, grandes son las necesidades y grandes nuestras fuerzas para atenderlas.

Queremos dejar claro, sin embargo, que no lo estamos haciendo solos ni queremos hacerlo solo para nosotros. Seguiremos haciendo nuestras aportaciones al sistema educativo y a la sociedad vasca. Y queremos abrirnos camino junto a vosotros y vosotras, con los agentes educativos, populares, culturales y del mundo del euskera, con las diferentes instituciones y administraciones locales. Colaborando, interactuando, cooperando. Porque los retos son colectivos, de país, y las respuestas también deben ser del mismo grado. Este país necesita respuestas compartidas.

¿Qué es lo que hemos decidido hoy?

Que necesitamos las Ikastolas del mañana para construir la Euskal Herria de mañana. Una frase tan breve como jugosa.

- Reafirmamos y fortalecemos la apuesta por el modelo Ikastola.
- Hemos decidido reforzar el movimiento de las Ikastolas.
- Nos hemos comprometido a seguir aportando a la construcción de un sistema educativo vasco soberano.
- Hemos decidido reforzar los proyectos nacionales que responden al conjunto de Euskal Herria y crear otros nuevos.
- Reiteramos nuestro compromiso con la adopción de medidas que posibiliten una oportunidad real para todos los alumnos y alumnas residentes en Euskal Herria.



- Hemos decidido poner en el centro a todas las personas que formamos parte del movimiento de las Ikastolas.
- Hemos definido las vías para consolidar nuestro Proyecto Educativo. Empezando por actualizar el currículo vasco, continuando con la definición de las cualidades de nuestros futuros materiales didácticos y finalizando con posicionarnos en la digitalización en torno a la soberanía e integración pedagógica de las herramientas digitales.
- Reafirmamos con fuerza nuestra apuesta por desarrollar nuestro proyecto educativo más allá de la educación formal.
- Hemos abordado nuevas líneas de trabajo en la creación y transmisión de la cultura vasca, y reivindicaremos la oficialidad del euskera para toda Euskal Herria. Las ikastolas surgimos para abrir el euskera a los cuatro vientos. Y hoy en día el euskera necesita de las ikastolas, quizá más que nunca.

Seguimos soñando. Soñamos que en un futuro muy próximo tendremos una nueva Ikastola en Beskoitze; que el euskera será oficial desde el Aturri hasta el Barbadún y desde el Cantábrico hasta las Bárdenas; soñamos con ser soberanos y valientes; que viviremos en una sociedad más justa y cohesionada; soñamos con consensos sociales y políticos a favor del euskera; soñamos que todos nuestros alumnos realizarán los exámenes en euskera sin tener que dar pasos de desobediencia que puedan acarrear consecuencias tanto a ellos como a sus profesores... Quisiera aprovechar este momento para apoyar con un fuerte aplauso al equipo docente que va a permitir a nuestros alumnos pasar la prueba oral del BAC en euskera. ¡Recibid nuestra solidaridad y apoyo!

A menudo, prevalecen las preocupaciones y dificultades del día a día. Pero afortunados nosotros porque tenemos todo un grupo que nos impulsa, porque tenemos una potente red que nos sostiene, porque somos un grupo de soñadores que miran al futuro con optimismo, ilusión y entusiasmo. Estamos haciendo una gran labor, más allá de los sueños, dibujando realidades.

Nuestra comunidad es amplia y comprometida. Estamos dispuestos a emprender nuevos trabajos. Para el pueblo y para la ciudadanía; desde la educación, desde el euskera y desde la construcción de país. Por los que fueron, por los que somos, por los que serán... Ayer, hoy y mañana, Gora ameslariak! Gora Ikastolak!

